

Poesia

ALAINE AGIRRE

Txoriak etortzen ez diren lekua

erein

TXORIAK ETORTZEN
EZ DIREN LEKUA

Poesia, 34

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. edizioa: 2017ko martxoan

Azalaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Alaine Agirre

© EREIN. Donostia 2017

ISBN: 978-84-9109-204-9

L. G.: SS-330/2017

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Alaine Agirre

TXORIAK ETORTZEN
EZ DIREN LEKUA



*Oraingo honetan,
neure buruari.*

*Mundua ere geure antzera biratzen da
bere buruaren giltza aurkitu ezinik.*

Joseba SARRIONANDIA

Idazten dut
neure burua sartu dudana kartzela honetatik eskapatzeko
idazten dut
giltzaz itxitako gelak eta komunak eta armairuak irekitzeko
idazten dut
beti zarratuta dauden leihoetan zirrikitu bat zabaltzeko
idazten dut
ziega pareta-zuri hau urratzeko
(haizea sar dadin
behintzat
arnasa apur bat
hartu dezadan)
idazten dut
neure burua zulatu eta
barruan
burmuina jaten ari zaidan zizare lodi hori
alikota batzuekin hartu eta erauzteko
idazten dut
ez dakit zertarako baina
idazten dut.

Bakarrik nago korridorean.
 Ez dago hemen
 eserlekurik
 mahairik
 zakarrontzirik
 altzaririk.
 Ireki ezin daitekeen
 leihoa bakarrik.
 Pintatu gabeko baina
 orbanez eta orbainez zizelkatutako
 paretak bakarrik.
 Bakarrik nago korridorean.
 Eta nirekin daude

emakume nagusi bat, lelo ulergaitzak kantari
 eta gizon xahar bat pijamatik kaka dariola
 eta mutil gazte bat bere logelan giltzapean utzi dutena
 atea kolpez ostikoz ukabilkadaz apurto nahian
 eta gazteegia den neska bat negarrez arnasa falta zaiola
 eta beste hiru neska irratiko azken arrakastak abesten eta
 dantzatzen antsiolitikoa hartu ondoren dantzatu ahal
 den moduan behintzat dandarrez hankak, dandarrez
 besoak eta gerria, dandarrez arima, dandarrez gogoia,
 bizipoza, eta bizitza bera. Eta bizitza bera.

Beste gizon bat beste psikiatriko batera deribatu dutena eta halako irribarre bat daroana ahoan; nola esango nuke, leku honetan irribarre egin daitekeen dosi maximoarekin, lar ez dena.

Eta panpina baten antz terriblea daukan emakume operatua, makillatua goitik behera.

Eta, gosaldu aurretik, erretzeko programatuta eta onartuta dagoen ordua baino lehen, erizainei mesedez mesedez mesedez zigarro bat, bat bakarra, bat sikiera erretzen lagatzea eskatzen dien mutila. Ala neska. Ez dakit zer den. Zer inporta du, ez baldin badakit nor den.

Eta korridorea garbitzen ari den emakumea. Orain dela bost minutu lurrera bota dudan gonbitoa garbitu duena: Yolanda. Garbitzailea izateaz gain, hemen dagoen psikologorik onena. Komuna giltzaz irekitzen diguna txiza ala kaka egin beharrean gabiltzanean. Atea irekita, guri begira egoten dena, txiza edota kaka ez den beste ezer egin ez dezagun.

Geure buruaz beste, adibidez.

Yolandak diost mopa pasatu behar duela
 baina geratzeko lasai
 nagoen lekuan.

Esan diot berari buruz idatzi dudala.

Poztu egin da.

Lagunak egin dituela hemen

esan dit.

Hemen.

Aurrekoan neska batek gutun bat bidali ziola

eta gizon batek koadro bat egin

eta horrela gustura etortzen dela lanera.

Hona.

Gustatzen zait Yolanda

ezpainak gorriz daramatzalako

irribarre leun bat janzten duelako

eta gezur gozoak esaten dituelako.

Hemen

txokolaterik jaten ez dugun leku honetan.

Esna egon naiz goizeko seietatik.
 Bederatziak arte ez digute armosurik ematen.
 Egonezinak jan nau.
 Egonezina jan dut.

Sei pilula eman dizkidate gosaritan.
 Ireki ahoa. Altxatu mingaina.
 Nik ezetz, tragatu ditudala
 denak.
 Ireki ahoa. Altxatu mingaina
 ostera ere.

Armosu gatzbakoa ondoren.
 Azukrerik gabeko deskafeinatu hotza plastikozko katilu batean
 ogi pusketa gogor bat
 enpagua ematen didan melokotoizko mermelada dietakoa
 mandarina zahar bat.

Eta tristuraz konturatu naiz
 gosaria bera baino nahiago ditudala kasik
 aurreko pilula guztiak.

Gosalondoan ohean etzan nahi nuke
lo apur bat egin
ahal banu.
Ezin baina
gela itxita dago
giltzaz.

Jantokian lagun egin dudan
mutil batengana joan nahi dut
berba egiteko
zigarro bat konpartitzeko.
Ezin baina
korridoreko atea itxita dago
giltzaz.

Gauaren erdian esnatu naiz
aldameneko andrearen zurrungek iratzarrita
eta komunerako gogoia etorri zait
txiza egitekoa.
Ezin baina
komuna itxita dago
giltzaz.

Giltzak, giltzak, giltzak.

Korridorera bueltan
 lurrean eserita
 leihopean
 izutzen nauen paper zuri baten aurrean
 boligrafoa eskuetan.

Ezin idatzi, ezin sentitu.
 Hutsa.
 Begiak ireki ditut
 indarrez
 barrua erretzen didan suzko negarra
 ateratzeko
 ateratzeko
 ateratzeko.

Leihoak zirrikitu bat dauka
 korridorea egurasteko adina
 ez guk geure buruaz beste egiteko lain.

Barruko sua apaltzen
 laguntzen dit
 hotzak.
 Zoru garbitu berria eta ateratzen ez diren malkoak
 arinago lehortzen laguntzen du
 haizeak.

Hiru aldiz sartu naiz komunera
gauean.

Hiru aldiz deitu behar izan diot
auxiliarrari
komuneko atea ireki ziezadan.

Komuneko atea zabalik egin ditut
egin beharrekoak
bera niri begira zegoela
azazkalei haginka ari zen bitartean.

Ez dakit zer usteko zuen
egingo nuela komunean.
Gaueko ordu txikietan
zulotik behera amildu edo?